



DANTZAN BILAKA 2022 DEIALDIA

ADDEren (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak) 2021eko urriaren 28ko Ebazpena, 2021eko abuztuaren 30ean argitaratutako Dantzan Bilaka 2022 programan parte hartzeko deialdia ebazten duena.

AURREKARIAK

1. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen arteko lankidetzaren emaitzaren ondorioz, 2021eko abuztuaren 30ean, Dantzan Bilaka 2022 programako parte-hartzaileak hautatzeko deialdia argitaratu zen ADDEren webgunean (www.addedantza.org).
2. Deialdiaren 7. atalaren arabera, 2021eko urriaren 19an argitaratu zen, Balorazio Batzordearen osaera deialdian aurkeztutako eskabideak baloratzeko. Batzorde hori 2021eko urriaren 28an Bildu zen Bilbaoeszenan eta ebazpen-proposamena landu zuen.

Horregatik guztiagati, Balorazio Batzordeak aurkeztutako ebazpen proposamena ikusita eta aipatu deialdiaren 2.1 atalak egokitu dizkidan zereginen ihardunean, hurrengo hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa_Ebazpen honen 1. eranskinean azaltzen diren pertsonak Dantzan Bilaka 2022 programaren partaide gisa izendatzea eta haietako bakoitzari Deialdiaren 1.4 atalean aurreikusitako dirulaguntza ematea (4.000 euro gordin).

Bigarrena_2. Eranskinean azaltzen diren pertsonak, zerrendako hurrenkera berean, ordeko gisa izendatzea, hautatutako pertsonaren batek aurreikusitako jarduerak hasi baino lehen programaren parte-hartzeari uko eginez gero (2022ko urtarrila).

Hirugarrena_3. Eranskinean azaltzen diren eskaerak ukatzea, bertan aipatzen diren arrazoiengatik.

Laugarrena_Dirulaguntzaren ordainketa (deialdiaren 11. atala)

1.-Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ordaintzeko, ADDEk kontratu bat sinatuko du hautatutako pertsona bakoitzarekin, aurreikusitako zenbatekoaren arabera (4.000 euro gordin) Dantzan Bilaka 2022 programan parte hartzearen kontzeptuan.

Zenbateko horri kasu bakoitzean dagozkion zergak edo legezko atxikipean aplikatuko zaizkio, kontratu bakoitza formalizatzen den pertsona fisikoaren edo juridikoaren tipologiaren arabera.



2.-Laguntzak bi epeetan ordainduko dira, bi fakturen bidez. Lehenengo aurreikusitako zenbateko osoaren %75a 2021eko abenduaren 31 baino lehen eta gainerako %25a, 2022ko abenduaren 30^a baino lehen.

Bosgarrena_Hautatutako pertsonen konpromisoak eta ez-betetzeak (deialdiaren 10. atala).

1.-Dantzan Bilakaren laguntzetarako hautatutako pertsonak betebeharrak izango dituzte.

- a) Laguntza ekonomikoa programan parte hartzeko eta aurkeztutako proiektua garatzeko erabiltzea.
- b) Dantzan Bilaka 2022 programako programatutako jardueretan parte hartzea (Deialdiaren 1. eranskina)
- c) Dantzan Bilaka jardunaldietan zehar egindako lanaren emaitza edo ondorio batzuk jendurrean aurkeztea, parte hartzaile bakoitzak eta Batzorde Artistikoak prozesuan adosten duten moduan (eranskinaren 6. atala)

2.-Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharrak edo 4. Paragrafoan ezarritako mugak eta bateraezintasunak ez betetzeak berekin ekar dezake emandako laguntza errebokatzea, eta hala badagokio, ordura arte kobratutako zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa egitea.

Seigarrena_Ebazpena, jakinarazpena eta desadostasunen kudeaketa (deialdiaren 9. Eta 12. atalak).

1.-Deialdiaren ebazpenean Dantzan Bilaka 2022 programan parte hartuko duten pertsonen/proiektuen zerrenda jasoko da, bai eta onartu ez direnak ere.

2.-Deialdiaren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei. Gainera, Dantzan Bilaka 2022 programan parte hartuko dutenen zerrenda, deialdiaren webgunean argitaratuko da.

3.-Ebazpenaren emaitzaren aurka, berrikusteko eskaera aurkeztu ahal izango zaio programaren jarraipen-batzordeari (2.2. atala) eta batzordeak gehienez 10 eguneko epean ebatzi beharko du.

4.-Programaren jardueren esparruan sor daitezkeen bestelako kontuei, desadostasunei edo gatazkei dagokionez, deialdiaren 12. Atalean aurreikusitako aplikatu da.

Bilbon, 2021eko azaroaren 3an



1. ERANSKINA

Dantzan Bilaka 2022 programan parte hartzeko hautatutako pertsonen zerrenda 2021eko abuztuaren 30ean ADDEk argitaratu zuen deialdiaren arabera. Hautatutako pertsona bakoitzak 4.000 euro gordinoko diru-laguntza izango du.

Esp. Zkia. Nº exp.	ESKATZAILEA / SOLICITANTE	PROIEKTUA / PROYECTO
9	LEIRE AMONARRIZ	HIZKI-DANTZA
1	IRATXE BILBAO	MIENTRAS TANTO
8	AMAIA CABERO	LURRA JO HONDARRA UKITU
11	ANE ZELAIA	NADA SE ROMPERÁ ASÍ
3	OLAIA VALLE	LO QUE PASA MIENTRAS
13	VICTOR FERNANDEZ	INVESTIGACIÓN SOBRE FLAMENCO Y CONTRABAJO
5	DIEGO PAZÓ	LA CONVERSACIÓN QUE NO VAMOS A TENER

2. ERANSKINA

Ondorengo pertsonak ordezeko gisa izendatzea (zerrendako orden berean) hautatutako pertsonaren batek aurreikusitako jarduerak hasi baino lehen programaren parte-hartzeari uko eginez gero (2022ko urtarrila).

Esp. Zkia. Nº exp.	ESKATZAILEA / SOLICITANTE	PROIEKTUA / PROYECTO
4	ATIC AINGERU HEREDIA	LA FRAGILIDAD DE MI POLLA
10	MAR GARCÍA	SHOSHINSHA



3. ERANSKINA

3.1.-Ondorengo eskaerak ukatzea, batzordeak eginiko balorazioan beren proiektuek hautatutakoek baino puntuazio baxuagoa lortzeagatik.

Esp. Zkia. Nº exp.	ESKATZAILEA / SOLICITANTE	PROIEKTUA / PROYECTO
12	SARAY GARCÍA	TOMBOLA
2	LAURA COBO	INVERSA
6	EIDER RODRIGUEZ	IDIOTAS
7	JONE LOIZAGA	LO DEJO CUANDO QUIERA

3.2.- Sarbide baldintza orokorrak ez betetzeagatik (deialdiaren 1.1 artikulua)

Esp. Zkia. Nº exp.	ESKATZAILEA / SOLICITANTE	PROIEKTUA / PROYECTO
13	AIALA ECHEGARAI	EL ARTE DEL NO SER
14	MARTA ORTEGA	MAIALEN
15	XIÁN MARTINEZ MIGUEL	NIK:EU